

## **IKERTZAILE DOKTOREAK UPV/EHUn KONTRATATZEKO DEIALDIA (2025)**

### **Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda**

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen oniritzia eta Gobernu Kontseiluaren onespena jaso ondoren, Ikerketa Errektoreordetzak (aurrerantzean IE) honako hau argitaratu zuen:

### **IKERTZAILE DOKTOREAK UPV/EHUn KONTRATATZEKO DEIALDIA (2025)**

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Ikerketen Errektoreordetzako Ikerketa Kudeatzeko Zuzendaritzak aztertu egin ditu aurkeztutako eskabideak, honako puntu hauek azpimarratuz:

- a) Eskatzaileek 3. oinarrian jasotako baldintzak betetzea.
- b) Eskaria bermatzen duen zuzendari zientifikoak 4. Oinarrian jasotako baldintzak betetzea.
- c) Eskaria bermatzen duen ikertaldeak 5.oinarrian jasotako baldintzak betetzea.
- d) 10. Oinarrian jasotako dokumentazioa aurkeztea.

**Onartutako** eskaerak ez dute izapide gehigarririk egin beharko.

**Baztertuta** daudenak zuzendu beharreko alderdiren bat duten eskaerek 10 egun balioduneko epea izango dute **(2025eko uztailaren 16tik 30era, biak barne)** adierazitako akatsak zuzentzeko edo nahi dituzten alegazioak aurkezteko. Epe hori igaro ondoren, zuzendu gabeko eskaerak atzera egindakotzat joko dira.

Onartutako edo baztertutako egoeraren ondoan (1) eta (2) agertzen badira, eskaerak honela baldintzatuta daudela esan nahi du:

**(1)** Kontratua formalizatzeko unean doktorego-titulua izatea eskatuko zaie. Baldintza hori betetzen ez bada, kontratua zerrendako hurrengo pertsonari eskainiko zaio, deialdian ezarritako irizpideen arabera.

**(2)** Ikerketa Errektoreordetza, UNIBASQ agentzia ebaluatzailearekin batera, proposatutako zuzendariaren ikerketa-jarduera ebaluatzeko prozedura bat irekitzea kudeatuko du, deialdiaren 4.1.b oinarrian ezarritakoaren arabera.

Horrez gain, I. eranskinean, halaber, 11. oinarrian jasotako merezimenduen puntuazioak argitaratu dira. Merezimenduei dagokienez, honako alderdi hauek berrikusi dira:

- **Euskararen jakite maila** (11.1.5. oinarria)
- **Ikertzaile hasiberrientzako pizgarria eta genero ikuspegia** (11.1.6. oinarria)

Eskatzaileek IEk onartutako merezimenduak egiaztatu ahal izango dituzte, eta, okertzat jotzen badituzte, adierazitako akatsak zuzendu edo nahi dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, lehen adierazitako 10 egun balioduneko epean: **2025ko uztailaren 16tik uztailaren 30era, biak barne.**

Alegaziorik aurkeztu ezean, ulertuko da hautagaia ados dagoela merezimendu horiek onartzearekin, eta ez da beharrezkoa izango izapide gehigarririk egitea.

**Zuzenketak eta alegazioak aurkezteko, deialdiaren 10. oinarrian adierazitako hiru bideetako edozein erabili beharko da.**

Leioan, 2025ko uztailaren 15ean

**GIZA BALIABIDEEN DEIALDIAK  
IKERKETA ERREKTOREORDETZA**